

Mondragon Unibertsitateko 2 ikasle saridun ORONA Get Up sariaren 3. edizioan

2012/11/29

Hirugarren edizio honetan Sergio Armentia Cerioren lana, Mondragon Goi Eskola Politeknikokoa eta Automatika eta Industria Elektronikako ingeniaria, izan da proiektu onenaren saria jaso duena, 1.500 eurokoa. Lanaren izenburua da: *“Diseño de motores de reluctancia asistida por imanes”*

Alex McCloskey Gómez, Mondragon Unibertsitateko industria-ingeniaria ere saritua izan da. Bere proiektua honakoa izan da: *“Metodología de diseño vibroacústico y análisis de calidad sonora en ascensores”*. Proiektu honetan hainbat ate-mota ireki eta ixterakoan sortzen den hotsaren kalitatearen analisisa egiten da eta makinek daukaten jarrera akustikoak aztertuz zarataren maila murriztu eta igogailuaren erabiltzaileak erosotasuna irabaztea du helburu.

ORONAKo Giza Baliabideetako zuzendaria, Mikel Tolosa, izan da sariemate ekitaldiaren burua. Bertan izan dira Jon Altuna, Mondragon Unibertsitateko errektoreordea eta Mikel Arcelus, Tecnuneko Garapen zuzendaria ere.

ORONAK bere esker ona adierazi die parte hartzaile guztiei egindako ahaleginagatik, eta eskatu die etorkizuneko erronkei ekiteko ikerketa arloan lanean jarraitzeko orain arte bezalako energia eta gogoarekin.



Orona Get Up